Nafarroako Gobernua

**HEZKUNTZA DEPARTAMENDUA**
**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN**

Mendaur D.B.H.I. / I.E.S.O

INATO IRAZOKI, S/N.
31740 - DONEZTEBE/SANTESTEBAN
948 45 60 05/Fax: 948 45 61 41
ieso.doneztebe@educacion.navarra.es

| PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPEN DOKUMENTUA | | | |
|---|---|---|---|
| **Ikasgaia** | Euskal Hizkuntza eta Literatura | | |
| **Irakaslea** | BIHOTZ UNANUA | **Ikasturtea** | 2016-2017 |
| **Maila** | DBH 3 | **Taldea** | A |

| **Irakasgaiaren ezaugarriak** | | | |
|---|---|---|---|
| X | Denentzako irakasgaia | Asteko saio kopurua | 3 |
| | Modalitate/Ibilbideko irakasgaia | Ikasturteko saio kopurua | |
| | Aukerako irakasgaia | Taldeko ikasle kopurua | |

## 1 HELBURU OROKORRAK

Indarrean dagoen araudian curriculumerako ezarritakoak eta institutuko zuzendaritzan hezkuntza komunitatearen eskura dagoen urteko programazioan zehazturikoak.

- DBHko curriculuma, 24/2015 Foru Dekretua.

## 2 EDUKIAK ETA DENBORAREN BANAKETA

### 1. Ebaluazioa

**Diskurtso-sekuentziak**

- Narrazio-sekuentzia
  - Narrazioaren egiturako elementuak:
    - Eskenatokia eta garaia
    - Pertsonaiak
    - Gatazka eta ekintzak
    - Narratzailea

**Hizkuntza-baliabideak**

Testuaren eremuan

- Narrazioaren egiturako elementuen arteko koherentzia
- Denborazko testu-antolatzaileak

Perpausaren eta hitzaren eremuan

- Perpausak
  - Aditzaren komunztadura
  - Leku-denborazko deklinabide kasuak
- Hitza
  - Hitz homofonoen ortografia

**Euskal eleberrigintza tradizionala eta mordernoa: obrak, garaiak, ezaugarriak, autoreak…**

**IRAKURGAI LIBURUA**:
Francesco D´Adamo, *Iqbalen historia*

### 2. Ebaluazioa

**Diskurtso-sekuentziak**

- Esplikazio-sekuentzia
- Deskribapen-sekuentzia

**Hizkuntza-baliabideak**
**Testuaren eremuan**

- Komunikazio-asmoaren araberako informazioa

**Perpausaren eta hitzaren eremuan**

- Perpausak
    - Kalko okerrak
- Hitza

Soziolinguistika-terminoak: Hizkuntza-transmisioa, hiztun-komunitate, erabilera-eremu, hizkuntza-normalizazio, diglosia, hizkuntza-ukipena, etab.
**IRAKURGAI LIBURUA**: Aitor Arana, *Amodioaren gazi – gozoak*

## 3. Ebaluazioa

**Diskurtso-sekuentziak**

- Argudio-sekuentzia: Tesia, Argudio motak, Falaziak
- Hizkuntza-baliabideak

***Testuinguruaren eremuan***

-Hizkuntza-funtzioak: gonbidatzea, eskertzea, eskatzea, zoriontzea…
- Igorle eta hartzailearen rolak eta testuinguru soziala

- Erregistroa: Formala/ Lagunartekoa edo informala
- Modalizazioa: esandakoarekiko igorlearen jarrera islatzeko hizkuntza-baliabideak
- Igorle eta hartzailearen presentzia diskurtsoan

Pertsona-deixia: pertsona bakarrari edo bat baino gehiagori erreferentzia egitekoak
Toki/leku-deixia eta denbora-deixia

***Testuaren eremuan***

- Jarraipen tematikoa

Hizkuntza-baliabideak: sinonimoak, hiperonimoak , erakusleak, sinonimoa + erakuslea, hiperonimoa +erakuslea

- Estrategiak: hitzen bat errepikatzea, aurrez aipatutako zerbait deskribatzea, solaskidearen nahi edo desio bati kortesia positiboa erabiliz erantzutea *Perpausaren eta hitzaren eremuan*

Aditzak
Nor-nork sailekoak: “egin” daramaten aditz-lokuzioak
Nor-nori-nork sailekoak
**IRAKURGAI LIBURUA**:
Ikasturtean zehar erabakiko da.

## 3 EBALUAKETA ETA BERRESKURAPENA

### Ebaluazio irizpideak

Indarrean dagoen araudian curriculumerako ezarritakoak eta institutuko zuzendaritzan hezkuntza komunitatearen eskura dagoen urteko programazioan zehazturikoak.

- DBHko curriculuma, 24/2015 Foru Dekretua.

### Ebaluazio prozedura

Ebaluazioan zehar eginiko azterketak (Testugintza, gramatika,...).
Irakurgaiaren azterketa edo lana.
Ebaluazioan zehar eginiko proiektua (lana, idazlanak, ahozko aurkezpenak).
Lana eta lanarekiko jarrera.

### Kalifikazio irizpideak

Ebaluazioan zehar eginiko azterketak (Testugintza, gramatika,...) **%60**
Irakurgaiaren azterketa edo lana.**%15**
Ebaluazioan zehar eginiko proiektua (lana, idazlanak) **%20**
Lana eta lanarekiko jarrera **%5**

**Oharrak:**

- Ortografia eta morfosintaxi akatsak: akats bakoitzeko 0,1 jaitsiko da nota, gehienez 2 puntu.
- Bataz bestekoa egin ahal izateko, gutxienez 3,5 atera behar da.
- Irakurgaia irakurtzea ezinbesteko baldintza izanen da ebaluazioa gainditzeko.
- Etxeko lanak 3 egunez egiten ez badira 0,5 gutxiago izango da azken nota.
- Nahitaezkoa da materiala ekartzea, ekartzen ez den hirugarrenean ez da klasera sartuko.
-

**Berreskurapen sistema**

Ebaluazioz ebaluazio ikasleek aukera izanen dute gainditu ez badute gainditzeko.
Ekainean, errekuperazioetarako zehazten diren egunetan, eginen dira ikasturtean zehar gainditu ez diren ebaluazioen errekuperazio-azterketak.
Gainditzen ez badute, osoa egin beharko da.
Errekuperazioa gainditzen badute, izanen duten kalifikazioa 5 edo 6koa izanen da gehienez.

**Aurreko ikasturtekoa gainditzeko**

2.DBHko euskara gainditu gabe duenak, ikasturtean zehar bi azterketa eginen ditu (otsailean eta maiatzean).
Horretarako ikasleari azterketetan sartuko zaiona eta errepaso ariketak emanen zaizkio.

## 4 PROMOZIO IRIZPIDEAK

Indarrean dagoen arautegian ezartzen diren irizpideak aplikatuko dira, eta promozio erabakia irakasle taldeak ebaluazio bilkuran egiten den deliberazioan oinarrituko da.

- DBH ko ebaluazioa, 24/2015 Foru Agindua

## 5 MATERIALA

- *Elkar argitaletxeak berriki argitaratutako testuliburua erabiliko dugu, EKI proiektuaren barruan dagoena.*